

EAEko IRAKASLEAK

EPE 2022. IRAKASLEEN MEREZIMEDU-LEHIAKETA

Prozesuaren [Agindua](#) Hezkuntzako web orrian argitaratuta zen. Horrez gain, [ohiko galderak](#) argitzeko informazioa ere argitaratu da.

Prozesua azaltzeko eta zalantzak argitzeko **hitzaldi irekiak** antolatuko ditugu:

Gasteiz. Osteguna 13, 18:00etan.
Aldabe Gizarte Etxean, Areto Nagusian.
Gasteizko hitzaldia: [Izena eman Gasteiz.](#)

Bilbo. Osteguna 13, 17:30ean.
Ingeniaritza eskolan (POI1 A.MAGNA Edif II)
Bilboko hitzaldia: [Izena eman Bilbo.](#)

Donostia. Asteartea 11, 17:30ean.
EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean. (HEFA I)
Donostiako hitzaldia: [Izena eman Donostia.](#)

Epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak, borondatezko parte-hartzea:

Karrerako funtzionarioek euren borondatez epaimahai batean bokal gisa parte hartu nahi badute, idatzi bat aurkeztu beharko dute; Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan. (Donostia kalea 1, Lakua, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Idatzia aurkezteko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako bideak erabil ditzakete (erregistro elektronikoa, posta arrunta,...).

Epea: 2022ko urriaren 3tik 31ra arte, biak barne.

2022-2023 LEKUALDATZE-LEHIAKETA (ESTATU MAILAKOA)

Deialdia urriaren 17tik azaroaren 7ra izango dela aurreikusten da. Zehaztasun gehiago izan bezain laster, jakinaraziko dugu.

EAEko IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

PREST_GARA IKASTAROAK – 2. TXANDA:

Behin-behineko zerrendak [hemen](#).

BENETAKO NEGOZIAZIOA ORAIN!!!